

...eta **kitto!**

752 zkia. 2011-11-18

ASTEKARIA

TOKIKOM



Aste berezia sahararrekin

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu*

* Hortz-inplanteekin egindako tratamenduentzat. Promozioak 2011ko maiatzaren 1era arteko balioa du. EZIN ZAIE beste promozioei GEHITU.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

German Amuategi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

HAN HAIKELAKUAN HEMEN.- Norbaiti aguro bueltau deiñ agintzeko erabiltzen da. "Juari azkar, han haixelakuan hemen!".

HANDIKO.- Beste aldekoa. "Handikao, Elgoibarren esaten jakon baserrira, ibaixan handikua".

HANKA BAT KANPOSANTUAN EUKI.- Hilzorian egon. "Estuasuntxo bat bakarrik? Hanka bat kanposantuan eukala ei jeuan da".

HANKA EGIN.- lhese egin, ospa egin. "Bezero batek pagau barik hanka egin jestak".

ESKUTITZAK

BEHARRAK ETA ESKAERAK LEHENESTEAREN ALDE

Eibarko Udaleko diru-kontuei buruz jardutean, beti aipatzen da zein gutxi zorpetzen den, zelako ahalginak egiten dituen gastuak gutxitu eta sarrerei egokitzen eta horretarako duen iaioasuna gorai-patzeko; hala ere, inork ez digu datu ekonomikorik erakusten, ajuste eta kudeaketa horiek bide onean doazen edo ez jakiteko.

Krisi sasoi honetan, aurrekontuak planifikatzean kontuan izan behar dira beharrak eta eskaerak lehenesten dituzten irizpideak, hauteskunde emaitzak alboratuz. Baina hori ez da beti horrela izaten. Aho handiarekin asmo onak eta zentzuzko inbertsioak aipatzen diren bitartean, aho txikiarekin sasoi hobe baterako baztertu beharko lirakekeen proiektuak eta beharrezkoak ez diren beste batzuk kale-ratzen dira.

Dirua Udalak, Diputazioak edo Fondo Estatalak ipintzen duen, gutxienezkoa da, gure poltsikotik irtezen baita. Ni, Eibarko Udaleko zinegotzi eta hiritar moduan, gero eta txundituago nago, besterik gabe, dirua gastatzearen egiten diren proiektuekin eta auzo eta jendearen arteko desberdintasunak handitu besterik egiten ez dituenean. Gainera, beti dago zalantza proiektu hauek orain ateratzeak ez dakarren

atzetik hauteskunde aurre-kanpainen gaudela eta denbora horiekin jokatzeko dela.

Jakinarazi zaigu Eibarko Plan Estrategikorako ikerketa kontratatu dela 40.000 euro ordainduz, hori lagun eta elkarte askoren artean orain dela urte batzuk, Plan Nagusiari heldu aurretik, landutako Plan Estrategikoa dugunean. Inolako kasurik egin ez zaion Plan Estrategikoa bada ere.

Ez nuke aipatu gabe laga nahi lan publiko batzuekiko udal kontrol eskasa; hori gero aurrekontuetan onartzen diren diru-partidetan nabaritzen da, asko eta asko subkontratek egindako kalteak zuzentzerako baitoaz. Horren adibide argia dugu Urkizuko dorreetan gertatutakoa.

Horregatik, beharrezkoa da eskatzea diru publikoa horrela ez gastatzeko eta Eibarrek eta eibarrek behar dituzten proiektuetan erabiltzeko. Gauza asko daude egiteko eta jende asko itxaroten, herriko nerabeak kasu. Eta jubilatuen ez ditudala kontuan hartzen esaten dutenez, esango dut Amañako Jubilatuen Etxea ere hor dagoela zain, aurten bakarrik 50.000 euroko partidarekin. Horrekin, esaten den moduan, pipetarako ere ez zaie helduko.

ELI GÓMEZ (EZKER BATUA)

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Abertzale euskaldunak bere jakin-minari pijama jantzi zion eta lotara bidali zuen. Abertzale euskaltzalea Espainiako hedabiderik eskuindar eta atzerakoenak irakurtzen/ikusten hasi da, bertan gutaz diotena emalez bidaliz zientzora hartzailerik; gainera, hedabide horiek planteatzen dituzten botazio peregrinoetan parte hartzera animatzen zaituzte. Nekagarria"

(Pako Aristi, idazlea)

"Txillidaren proiektuak Fuerteventurako Tindaya mendirako ez du akatsik eta, mendi horretako podomorfotzei ez erasotzeaz aparte, babestu egin ditu. Eduardok sarrerarako ere mendiak zuen hutsune naturala erabili du, kalterik ez egiteko. Hori bai, monumentua egiten bada, ondoren etor daitezkeen espekulazioa, eraikuntzak... gestio hori bestelako arazoa izan daiteke"

(Jose Luis Baroja Collet, artista)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

**LARRIALDIXETARAKO
LAGUNTZAK**

Gure herrixan premiña larrixan dagozen famelixeri banatutako laguntzak jasotzeko eskaerak %14 egin dabe gora azken urtian: 2010ian sekula baiño diru-laguntza gehiago banatu zittuen, 348 danera. Aurten horrelakueri aurre egituko 197.547 euroko aurrekontua dake Udalian.

IMESA-REDAKO BERMEA

Udalak Imesa-ri (Eibarko Udal Inmobiliarixari) berme edo abala emotia onartu barri dabe. Eusko Jaurlaritzak Asola-igartzan protekziñoko etxiak egituko diru kopuru zihetza aurreratzia eskatzen detsa Imesari, 2.554.961 euro hain zuzen be eta Banco Santanderren kontua zabaldu ahal izateko Imesak Udalaren abala bihar dau. Etxiak erosten dittuenak pagatzen dabenian kontu hori indargabetuko dabela aurreratu dabe.

**MASKOTENDAKO
TANATORIXUA**

Kristina Ruiz, Silvia Luque eta Aitor Garcia eibartarrak maskotendako tanatorixua ipiñiko dabe martxan. 119 bat metroko azaleria eukiko daben tanatorixua Matsarixako industrialdian egongo da eta martxua amaieran zabaltzeko asmua dake. Gipuzkoako bigarrena izango da, Astigarragakuaren atzetik.

**Krisixaren
kontrako plana**

AURREKO BARIXAKUAN DEBEGESAN EGINDAKO EKITALDIXAN, GIPUZKOA-KO FORU ALDUNDIAK Krisiaren Aurkako 2011ko Planaren barruan onartu ditten neurri eta laguntasunak emon zittuan ezagutzera. Markel Olano ahaldun nagusixak eta Pello Gonzalez Ogasun sailburuak emondako esplikaziñuak entzuten hainbat arlotan diharduen 80 bat enpresetako ordezkari egon ziran. Bestalde, eta Debegesako ordezkariak emondako datuen arabera, krisixari aurre egituko plan horri esker Debarrenako 18 enpresak euren proiektuak aurrera etartzeko aukeria euki eben 2010ian eta, horrekin batera, goi maillako kualifika-



80 enpresatako ordezkariak jarraitu eben Olanoren azalpenak.



ziñua zeken 24 gazteri kontratua egittia posible izan zan. Eibar, Elgoibar, Mendaro eta

Debako enpresetan egindako inbersiñua 2.200.000 eurokua izan zan.

Estaziñua konpontzen hasi dira

MATSARIXAKO ZATI BATIAN OBRETARAKO ERABILTZEN DIRAN TXABOLETAKO BAZUK IKUSTIAN, batek baiño gehixagok galdetu detsa bere buruari zertan hasiko ete ziran biharrian han inguruan: Estaziño kaleko geltokixa barriztatzeko biharrik hasi dittue egunotan eta bihargiñendako gauzak gordetzeko-eta dira prefabrikautako etxetxuak. Beraz, biharrian diharduen bittartian behintzat horretxek ipiñitta dagozen tokixan automobilla lagatzerik ez da izango. Moyua y Azvik eukiko dabe biharron arduria,



Eusko Jaurlaritzak esleitutakuari jarraituta eta 2'63 millioi erabiltzeko presupuestua da-

ke. 2012ko lehelengo hiru-illekuan amaittuta egotia dake aurreikusitta.

Bosgarren urteurrena**IOSU TREBIÑO GARITAONANDIA**

2006-II-17an hil zen

**“Izan zinelako gara”**

Haren aldeko meza *hilaren 19an, zapatuan, ospatuko da San Pio X. elizan, arratsaldeko 19.00etan*





zer giñateke euskara gabe?
zer giñateke bazkide gabe?

Apirilak 9

OSTRORIK OSTRO
ARBOLIA
JANTZI



asteko
89.232
datua

lagun pasau ziran 2010. urtian Orbeako kiroleghi barritik, zabalik egon zan 363 egunian (batazbeste 245 lagun egun bakotxeko). Gehixen erabili ziran zerbitzuak spa (6.000) eta igerilekua (850) izan ziran.

Errebalerako asmuari eutsiko detsa Udalak

MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIAK ETA ENEKO ANDUEZA HIRIGINTZA ZIÑEGOTZIXAK AURREKO BARIKUAN AZALDUTAKUAREN ARABERA, Errebalen merkataritza gunia egitteko asmuari eutsi egingo detse. Azken hillebetiotan behin baiño gehixagotan esandakua harittik, aldi berian eraikuntzako sustatzailiak eta merkataritza arloko promotorak diran enpresa birekin hasittako harremanetan ez da etenaldirik egon eta, horren arabera, Errebalen merkataritza zentrua egitteko aukera egon badago. Plan berezixak aurrera egittiarekin batera, modu paraleluan Bete Beharrekuen Baldintza-Plieguak aurrera egittia aurreikusten dabe.

Bestalde, Aralar alderdixak sozialisten agerraldixaren bezperan helarazittako idatzixan



Aralarrek tramitiak hauteskunde ostera arte atzeratzia eskatu dau. / SILBIA HERNANDEZ

“Errebalgo tramitiak hauteskundiak pasau arte geratzia” eskatzen eban, bestiak beste sozialistak gai horren ingurukuekin etekin politikorik etara ez deixen. Horren harira, Toyosek argi laga nahi izan eban ez dabela horrelakorik egingo eta aurrera egitteko asmua berretsi eban, “hauteskundiatarako pliegua onartuta egotia ixa ezi-


ñezkua” izango dala jakinda ere. Ezker Batua alderdixak, barriz, beste ohar batian “barriaxak herrixaren interesen aldekuak” izatia espero dabela azaldu dau eta, Aralarrek egin-dakuaren bidetik, herritarren partehartze ezaren inguruan kejtzen da, proiektuari barriro heltzeko fetxaren inguruko sus-mua azaltziarekin batera.

Politika barrixak euskerazko hedabidiendako

EUSKARAZKO 80 HEDABIDEK, ...ETA KITTO! ALDIZKARIXAK BARNE, POLITIKA BARRIXAK ESKATU zetsazen martitzenian erakundieri, Donostian egindako agerraldixan. Oin dala aste bi hedabidiak editorial bateratua emon eben argittara eta aste honetako ekitaldixarekin beste pauso bat gehixago emon nahi izan dabe, prentsaren aurrian dittuen premiñak azaldu eta bizi daben egoeria azaltzeko. Orohar, dirulaguntzak haundixaguak izan bihar dabela esan eban Jasone Mendizabal Topagunea, Euskara Elkarteen Federaziñoko zuzendarixak, finkoak eta denboraz jakiñarazittakuak izateko premiñia be gaiñeratuta: “Hedabidien ekoizpena-

ri eta eragiñari erreparatuta, aurrera begirako erronka barrixeri heldu ahal izateko moduko dirulaguntzak izan bihar dira”. Krixi ekonomikuak hedabide euskaldunak gogor astindu dittuela be azaldu eban: “Lehendik be baliabidez urri, eta oiñ are larrixago dagoz”. Sostengu haundixagua sekula baiño gehixago bihar dabe une honetan.

Bestalde, instituziñuen publizidadia euskarazko komunikabidietara bideratzia be eskatu eben, “euskaldunen erdixak gure hedabidieri erreparatzen detse. Uste dot badakagula publizidixian horren parekua jasotzeko eskubidixia”, azpimarratu eban Joanmari Larrate EKTko ordezkariak.



Eva Juez aurkezpen ekitaldian. / SILBIA HERNANDEZ


Eibar Garatuz presentau dabe

EVA JUEZ EIBARKO EAJ-KO ALKATEGAIXAK AURREKO BARIKUAN PRESENTAU EBAN kazetarixendako egindako agerraldixan Eibar Garatuz izeneko webgunea (www.eibargaratuz.com). Udal hauteskundiataro begira, berak ordezkutzen daben alderdixaren programia osatzeko orduan aparteko garrantzixa emon nahi detse herritarren aportaziñueri eta, alkarren arteko komunikaziñua errazteko asmuarekin, webgunia eta bertan eskintzen diranak herritarren eskura ipiñi dabe. Proposamen eta bestelakuak egitteko bidia zabaltziarekin batera, oiñ hurrengo ezagutzera emon eben 2021 Plan Estrategikuaren barri be emoten dabe atarixan.



Jenaro Garate ekonomilarixa hil da

SASOI BATIAN ...ETA KITTO! ASTEKARI HONETAKO KOLABORATZAILLIA IZAN ZAN JENARO GARATE ekonomilarixa aurreko astian, barixakuan hil zan, 84 urterekin. Ekonomia arloko gaixen gaiñian euskeraz idazten lehelenguetakua izan zan oin dala 40 bat urte eta, Roman eta Gotzon anai-



xak moduan, bera be Jesusen konpaiñiakua izan zan sasoi batian, gerora bide hori albo batera laga eban arren.



Kantabriako etxekuen bazkarixa

AURREKO DOMEKAN HOGEI BAT LAGUN ALKARTU ETA BAZKARIXA EGIÑ EBEN Jardñeta kalia dagan Kantabriako Etxian. Eurak bialdutako erretratuan agertzen diranak 80. hamarkadan Kantabriako Etxeko abesbatza osatzen ebenetako batzuk dira eta, 20 urte pasau ondoren, ederto emon eben eguna, *“cocido montañes dalakua janda eta ondoren ‘montañesa’ batzuk kantautu”*.



Factoring azoka martxa betian

AURREKO ZAPATUAN AGURTU GENDUAN EIBAR FACTORING BEHERAPENEN AZOKA BEREZIXA martxa onian jua zan eta bertan parte hartzen jardun eben dendarixak pozik dagoz emaitzarekin. Eibar Merkataritza Gune Irekia alkartiak, bestalde, pintxua duan hartzeko txartelak banatzen dihardu egunotan, 5.000 bat bono guztira: gaur arte erdialdeko tabernetan erabiltzeko aukeria dago eta hillaren 21etik 25era, berriz, Urkizu aldeko tabernetan hartuko dittue bonuak.

anzorik anzo



Untzaga eta Legarre igogailuak lotuta

Ardantzako tren geltoki barrixaren gaiñian egitten diharduen pasialekuraiño igogailua erabillita ailegatzeko aukeria egongo da. Oin momentuan Mekolako “milloidunen” etxietaraiño juateko igogailu pribaua martxan ipintzeko biharrian dihardue, baiña Udalak argittu dabenez, erabillera publikorako beste bat be ipiñiko dabe. San Juan kaletik Mekolara juateko eskillareri eutsiko jakuen arren, Ardantzako geltoki barrixaren biharri lotuta doia igogailua ipintzeko proiektua. Halanda be, tren geltokixa martxan ipiñi ostian hasiko dittue igogailurako biharrak.



Geraleku barrixa ia prest

Udaletxe osteko tren geltoki barrixa hillebete honen amaiera aldera inaugurauko dabe, seguruenik otsaillaren 26xan, egun definitibua oindiok konfirmatzeko badago be. Begibistakua da azken aldixan han inguruan egindako biharrak azken errematiekin lotutakuak dirala (señalizaziñua, paperontzixak, zillar kolorian “Ardantza” izena osatzeko letrak ipintzia...). Trenbidiaren bikoizketa eginda, geraleku barrixak 80 metro luzeko nasa eukiko dau erdixan, 6 bat metroko zabalerarekin. Lehenguarrekin konparautu, geltoki barrixaren altueriak metro erdi gehixago eukiko dau, trenbide azpitan jendiari harrerria egitteko sarria egongo da-eta.

Zapatuan, Euskal Herrian Euskaraz-ek deituta, milaka euskaltzale bildu zituen manifestazioa egin zen Donostian. Euskararen aldeko hautua egitera deitu zuten bertan eta, "euskara menpeko hizkuntza dela iritzita", egoera hori irauli beharra nabarmendu zuten. Bertan Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" idazlea omendu zuten eta elkartearen sorreraren aldarrikapenak bizirik daudela azpimarratu. Igone Lamarain eibartarrak buru-belarri egin du lan manifestazioa prestatzen eta horrela dihardu euskararen aldeko dinamiketan.

IGONE LAMARAIN, Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea:

"Aldarrikatzea baino, euskaraz egitea da kontua"

- Zer moduz joan ziren zapatuko manifestazioa eta bestelako ekitaldiak?

Manifestazioa arrakastatsua izan zen, batez ere euskalgintzarekin eta herri mugimenduekin konpartitzeko aukera eman zigulako. Orain arte eskubideen alde egindako bidean beste jauzi bat eman dugu eta poztokoa izan da aldeko jarrerak duen oihartzuna ikustea. Mezuarekin bat eginda, gu izan gara aktore, bertatik bertarako beharrezko lan horretan.

- Zergatik omendu duzue Txillardegi?

EHEren sorreran izateaz aparte, bera izan zelako bultzatzaile nagusietako bat. Erreferentetzat ere badugu, Txepetxen teoriari jarraituz asko borrokatu duelako. Eta ereduak ere izan da, euskara beti lehenetsi baitu, horrek askotan politikoki kostoa ordaintzea ekarri badio ere.

- "Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe". Nondik eta zertarako lelo hori?

Euskararekin sasi artean lan egin behar izan dugulako askotan: ezintasun behartuarren metafora moduan erabili dugu. Bidea ez da erraza izan euskararentzat: batzuk ez dakite, legeak ez du laguntzen, inguruak ez

du laguntzen, estatusa lortu beharra dago... Hala ere, harrotasunez bizi beharra dugu: aldarrikatzeaz aparte, lehenetsia eman behar digu euskarari, euskalduntasun horri. Leloa egunerokoari eta norbanakoari doa zuzenduta, bie aldi berean. Independentziazaleak izatea aurpegiraten digute askotan, baina guk burujabe izatea besterik ez dugu eskatzen, bertatik bertarako; legedi eta politikaren gainetik, Euskal Herria euskalduna delako.

- Euskararen aldeko aurrepausorik egin da azken aldian?

Nabarmenik ez, instituzioek ez baitute lehenetsi. Euskalgintzak hartzen duen eremu zabalean bai, eta baita herrietan ere, helduen euskalduntzean... Urrats sendoak ematea falta zaigu akaso, baina euskararen nahia hor dago. Erabaki politikoak ere beharrezkoak dira.

- Zelako bilakaera izan du EHEk 30etik gorako urte hauetan? Aldaketak izan dira?

Hasierako helburuetan zegoen eragile aktiboa izatearena eta horrek markatu du norabidea gehienbat. Hasierako urteetan aldarrikapen orokorrak izan zuten tartea

80. hamarkadan UEMAREN sorrerak hartu zuen, ondoren paso egiteko eskolak euskalduntzeko dinamizari... beti ere sasoikora lotuta. Hizkuntz eskubideen aldeko borrokan aitzindaria izan dela ahaztu gabe; hala ere, eskubideen bermea ez da nahikoa, gero horiek herriaren bizitzan eman behar dira.

- Zelako harremana duzue euskaren inguruko



Lamarainek euskararen aldeko jardunean norbanakoaren zein herriaren jardunbideak nabarmendu ditu. / KOLDO MITXELENA

beste erakundeekin: Kontseiluarekin, esaterako?

Kontseiluaren sorreratik gaude euskaren unibertso horretan presente eta jarraitzen dugu zuzendaritzaren partaidea izaten. Eragile bakoitzak bere betekizuna du, baina indar metaketa beharrezkoa da eta horretan dihardugu, elkarlanean.

- Jaurlaritzaren aldetak zertan eragin dio euskarari?


Lehendik zegoen Euskara XXI aurreko bidetik jarraitu du, orain zarata gehiago ateratzen badu ere. Juaristi sartu dute Aholku Batzordean, lehendakariak garrantzia kendu zion euskara ikasteari, indarkeria euskararekin lotu zuen, hizkuntz eskakizunak jaitsi dira... Lotsa gutxiago erakusten dute. Euskalduntzea ez dute helburu.

- Zeintzuk dira euskararen larritasun serioenak gaur egun?

Larriena: bizi nahi dugula eta ezin dugula. Euskaraz bizi diren eremu batzuk badaude, baina gehienetan gaztelera eta frantsesa dira nagusi, Espainiako eta Frantziako konstituzioek hala agintzen baitute. Orain hasteko den prozesuan ere, herria euskalduntzea ez dute lehenetsunaren artean.

- Motzera, zeintzuk dira zuen helburuak?


Euskaraz Bizi dinamikarekin jarraitzeko asmoa dugu: Euskaraz Bizi Eguna ere martxoaren 19an egingo dugu Gernika-Lumon. Norbanakoari euskaraz egitearen harrotasuna txertatzeaz gain, euskalgintzak zentralitate eskuratu behar du herri dinamikan.



Lamarain eta Txillardegi omendua zapatuko Donostiako ekitaldian.

Kalerautako azken datuen arabera, Mendaroko ospitalian egin biharreko operaziñorako itxoin bihar dan denporiak Osakidetzeko beste edozein zentrokoa baiño luziagua da: astebete gehixago itxaittia tokatzen jaku eskualdekuori eta operaziño batzuk Debagoienako ospitalian be egin dittue. Baiña, zer iruditzen jaku jendiari?

Zelan ikusten dozu Osakidetzak eskintzen daben zerbitzua?



TEO TABOADA
62 urte
aurrejubilaua

Badakitt atzerapen haundixa daguala hainbat operaziño egitteko eta mediku eta personalen falta daguala, baiña izan dittudan esperientziak beti onak izan dira. Tratua bikaiña izan da beti eta jaso dugun arretia be mailla berekoa.



ARANTZA CUEVAS
34 urte
gerokultoria

Hobia izan bazeikian be, nire esperientzixa ona izan da. Oin dala gitxi operau nabe eta izan dodan esperientzixa oso ona izan da: egun gitxi egon bihar izatiaz gain, tratua eziñ hobia izan da. Badakitt hamendik kanpora okerrago dagozela.

AMALIA CADIA
77 urte
etxeoandria

Oso zerbitzu ona jasotzen dogulakuan nago. Oso ondo tratatu izan nabe beti eta hamen beste iñon baiño hobeto gagozela uste dot. Ez dakat kejarik, kontrakua baiño, oso pozik nago-eta.



JUAN CARLOS RETEGI
61 urte
pensionista

Orokorrian zerbitzua ona dala uste dot. Hori bai, medikuen artian baja asko egoten da: eurak be saturatuta dagozela uste dot. Baiña ahal danik eta hobetuen atenditzen gaituelakuan nago. Nik personalki esperientzixa ona izan dot.



**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

EGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizte 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laber

Egoibonen (Signo poligonon)

Partikular: mutua eta aseguru ezeki zerbitzuak

Korak - Eskelak - Urteanako eskelak

Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen zailgu

Nazio eta Nazioarteko itzuldeak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

etxola
JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Marruekosek Sahara okupau ebanian, saharar askok ihes egin bihar izan eben eta Argeliako basamortu latzenian kokatu eben errefuxiatu kanpamentuak. 35 urte egin dittue euren lurraldera itzultzeko ametsetan, ezer ez daquan toki batian laguntza humanitariotik bizitzen. Euren egoeria eta bizibaldintzak ezagutzeko, euren egoeran bizitzeko eta diru eta janari laguntza eramateko atxakixarekin, azken 10 urtiotan Saharako naziñoarteko maratoi solidarixua antolatzen da otsaillaren azken astian. Astebetian hango errefuxiau herrietan bertako famelixarekin batera bizi zara haimetan. Haientzat urteko egun bereziexnak dira: lasterketa egunak jaixa dira eurentzat. 5, 10, 20 edo 42 kilometroko lasterketak egin leikez basamortuan zihar. Esperientzixa zirrara garrixua eta politta da, berua jasan arren; eta eskasia haundixarekin bizi badira be, daken dana emoten detsue. Aurten ezingo badira egon be, aurreko azken urte bixetan izan dira parte hartu daben eibartarrak. Hurrengo urtiotan animatzen danak informaziñua web orri hauetatik jaso dezake: www.sahamarathon.org eta www.euskalsaharathoia.com.

Solidaridadia eskindu eta beste mundu bat ezagutzeko aukeria

Otsaillaren azken astiarekin batera, Sahara Maratoiaren ediziño barrixa jokatu da datorren astian, “*mundu maillako basamortuko maratoi orjinalena*” iaz bertan izan ziran Eibarko laukotiaren esanetan. German Amuategi eta Malen bere alaba, Iñaki Serrano eta Edu Oiarzun Dakumaren haiman izan ziran iazko zazpi egunetan eta oindiokan be ondo goguan dake han bizittakua: “*Oso aberasgarrixua da eurekin bizitzia, nolako egoeria jasaten daben ezagutzia*”. Ero-sotasun gitxi izaten da halakuetan, baiña halanda be “*asko ikasten dogu, erakusteko asko dake-eta*”. Aurten ezin izan dira jua, baiña errepikatze-asmua sendo dirau euren barretan; Amuategitarrak, gaiñera, aurretik be bertan izandakua dira eta lagun zintzuak ditte saharauien artian.

Sahara Marathoiko XI. ediziñua izango da aurtengua eta ehun korrikalarixen taldia osatzeko kanpaiña egin dabe antolatzailliak. Oin dala urte bi hogei bat euskaldun izan ziran saharar kanpamentuetako mara-

toian parte hartzen; iaz asko igo zan hamendik juandako parte-hartzaillien kopurua: 88 lagun. Aurten, baiña, krisixa dala eta ez dala, asko jaitsi da kopurua.

Eibartarrak iazko esperientzia kontau deskue eta holako proiektu bat antolatziak dittuan zailtasun eta nekiak: “*Udia pasau eta gero komeni da hurrengo urterako apuntatzen hastia. Lasterketian parte hartu bihar badozu, 850 euro ordaindu bihar dozu eta, bestela, dorsal barik, 600. Antolaketak-eta dittuen gastuak kenduta -hor diru-*



Iñaki Serrano, Josu Artetxe, Edu Oiarzun eta Malen bertan antolatutako jaialdixan.

rik ez dabe irabazten-, beste guztia kanpamentuetan bizi direnentzat geratzen da”, diñue eibartarrak. Urte biko diruarekin, esaterako, Kirol Zentrua egin dabe Smaran. Madrildik hara jua zan abioiak 500 lagunekin

jua zan eta Italiatik urten eban beste baten 250 parte-hartzaillie jua ziran: “*Txarter hegaldixak izaten dira eta fakturatzen bakarrrik, daroiagun pisuarekin-eta, sei ordu baiño gehixago emoten dogu*”.



German, Malen eta Edu Oiarzun maratoia anunziatzen daben paretaren aurrian.

Lau lasterketa modu

80 nazionalidadeko korrikalarixak izan ziran iaz maratoi lau modalidadietan parte hartzen: 42 kilometrokan hartzen dabe parte gehixenak, baiña horren erdixa korritzeko aukera be badago eta baita 10ekuan edota 5ekuan parte hartzia. “*Han desiatzen egoten dira aste hori heltzeko: herrixan kriston jaixa egitten dabe eta egun nazionalaren proklamaziñorako aprobetxatzen dabe. Horko ekitaldixan Saharako lehendakarixa be izaten da eta sa-*

ri banaketia anfiteatro modukuan egitten da”, diñoskue bertan izandako eibartarrak. Lasterketia herri guztietatik pasatzeko aprobetxatzen dabe eta kirolarientzako be erronka politta da: “Bero egitten dau eta noizbaitten haize-ekaitzari be aurre egin bihar izan detse. Horregaittik eruan bihar dozu buf-a derrigorrez, ba-besteko”.



Kamelluak saharaiuen bizitzako protagonistak dira.

Saharaiak laguntza humanitariotik bizi dira eta, munduko beste edozein tokitan zeozer gertau eta laguntza bihar bada-be, horren eragiña jasatia be tokatzen jakue: “Iaz, esaterako, Haitin gertatutakuekin, diru gixiagi jaso eben eta, horregaittik, eskatu zeskuen erropa gixiagi eruateko eta janari gehixago”. Egoeria gero eta konplikatuagua da eta urteerarik ez da ikusten, “naziñoartian hartutako erabagixak ez diralako bete”. Bestiokin hartuemonak izatia biharrezkua egitten bajakue be, “berezkua dake ospitalari-xuak iza-




arren”.

tia. Jende nagusixenak badakixe bertan hilgo dirala, baiña gaztiak handik urtetzia nahi dabe eta armak hartzeko prest agertzen jatuz”. Eibartarren taldiari aurten bertan egotia eziñezkua egin jako, baiña asmatu dabe laguntza bialtzen: “Lasartetik doiazan beste batzueri emon detseguz, dirua-eta, gure laguntasuna bihar dabe-eta”.

Hamengo eta Saharako jendien arteko hartuemonak aspal-dikua da eta horren adibidia

izan leike bertan Espaiñiako probintzia guztiak ezagutzia: “Hango ume guztiak penintsulan izan dira eta, Euskal Herrixa ezagutzen daben moduan, Al-Andalus be (eurak holan deitzen detse) ondo ezagutzen dabe. Hango egoeria gaixotasun mota asko sortzen dittu eta badake hamengo medizinen biharrira. Hori bai, danak dagoz alfabetatuta eta, behin hazitta, Argeliara, Kubara edo Errusiara juaten dira, kanpuan ikasittakua gero bertan aplikatzeko aukerarik izan ez



Dunetaz gozatzeko aukeria izaten da antolatzen dan txanguan.

guna”, diñosku German Amuategik. Sozializatzeko, teiaren zeremoniarena erabiltzen dabe: “Teia askotan hartzen dabe eta goizeko 05.00etan esnatzen dira, errezuekin hasteko”. “Munduko tokirik minatuen” dala diño Serranok, “behintzat minaz inguratuta daude, Argeliak lagatako beste ezer ez dakan lur batian”.



German eta Malen Amuategi, Dakuma Maren famelixarekin.

Basamortuaren erdixan aurkitzen dan errefuxiatu kanpamentuan egonda, mendebaldeko erosotasunen arrastorik ez da bertan eta haimatan ur hornidura murrizta da, norberaren garbitasunerako ur ontzi bat justu. “Lasterketaren egunian dago dutxatzeko aukera bakarra”. Kanpamentuetan artisautza,

arropa, janarixa etabar saltzen daben dendak dagoz. Egonaldixan, bestalde, parte-hartzaille guztiak sahararren famelixen haimatan hartzen dabe ostatu eta, taldiak osatzerakuan, ezagunekin alojau nahi izan ezkeru, aukeria izaten da: “Zure etxian moduan sentiaraziko deskue”.

7 eguneko egitaraua

Asmo guztiak betetzia erraza izan ez arren, egitarau morokua prestatzen da beti. Iazkua honakua izan zan: 19xan, Madril-Tindouf hegaldixa, Smaran ostatu hartzeko; 20xan, Smaran goiz-

pasa eta arratsaldian maratoirako izenak emon; 21ian, pasta-afarixa; 22xan, Sahara maratoia; 23an, sari-banaketa ekitaldixa eta kultur bisitaldixak hainbat egoitzerara; 24an, Dahlarako biajia; 25ian, foball partidua, umien lasterketia eta dunetara txangua; eta 26xan, saharai errepublika arabiar demokrati-kuaren urteurrenoko jaixa eta Tindouferako biajia.

Ikusten danez, ez da asperetzeko denbora askorik geratzen. Baiña, ez hori bakarrik: bertan izandakuak barru be errepikatze-asmua izatiak esanahi berezixa daka. Animo, ba, eta datoren urterako plana egitten hasi. Ez jatze damutuko!

TEEN-
AJEA



Asier Lopez de Viñaspre Gazte Zerbitzuaren koordinatzailea da udatik hona. 1999an hasi zen udalean lanean, **Baina 2002tik aurrera egin du lan batez ere Gazteriaren esparruan eta, sasoi bateko Gazte Informazioak betetzen zuen arloetatik aparte, beste hainbat hartu ditu bere gain zerbitzua beragan zentralizatu den neurrian.**

ASIER LOPEZ DE VIÑASPRE:

“Gazteen beharren zerbitzura gaude”

- Zein adinera arteko zerbitzua eskaintzen duzue?

Eusko Jaurilaritzaren gazte-tartela 30 urtera artekoentzat bada, gu ere horraino heltzen gara. Ume, nerabe eta gazteentzako zerbitzua ematen dugu eta aurten, bereziki, nerabeen arloa indartu nahi izan dugu. Inauguratu behar dugun Gaztelekura doaz bideratuta energia asko.

- Gazteek zein informazio mota eskatzen dizuete, batez ere?

Etxebizitza, lana, ikasketen eta oporren ingurukoa izaten da, azken honen inguruko eskakizunak nagusi badira ere. Oporraldiak gerturatzaren diren neurrian, merkeago bidaiatzeko karneten bila dator jendea, batez ere.

- Informazio Bulegoa martxan hasi zenetik, asko aldatu du funtzionamendua?

Batez ere, bilakaera Internetek markatu du eta teknologia berrietara egokitu behar izan dugu.

- Jendearengana heltzeko arazorik badituzue?

Umeen eta gazteen esparruetan errazagoa da hartu-eman; nerabeen kasuan arazo gehiago izaten ditugu, askotan ez baitaigu benetan zer interesatzen

zaien. Aurten, esaterako, edizio digitala lantzeko ikastaroak aukera polita eskaintzen bazuen ere, jendeak ez zuen izenik eman. Zapatuko tailerrak, aldiz, parte-hartze handia dute LHtik 2. mailara arteko ikasleen artean.

- Zein da sailaren helburu nagusia? Zer nahi duzue lortzea?

Bai ekintzetan eta baita informazioan ere jendearengana heltzea. Parte-hartzeak gora egitea nahiko genuke; hau da, euren antolatzen denak, lana eskatzen duen neurrian, fruitua ere ematen duela ikustek.

- Hori lortzeko, non ikusten dituzue zailtasunak? Nondik jo behar duzue aldaketa bila?

Askotan boladaka funtzionatzen dute, modari jarraituz. Soluzioa izan daiteke antolatzen diren ekintzetan, nerabeen parte-hartzea sustatzearena, sorkuntza horretan eurek parte hartzea

- Jendeak zuekin harremanetan jartzeko helbiderik bai?

Aurten sortu dugu gazteria@eibar.net eta liburutegian ere blog bi ditugu, helduentzako bata, umeendako bestea: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/eibar> eta eibarkoumeak.





● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Indianokua Gaztelekuarentzat teknologia berri-berriak

Eguaztenean sinatu zuten Gazteleku berrirako cyber gelaren inguruko hitzarmena Portalean, prentsaren aurreko ekitaldian M^a Jose Telleria Kultura-Euskara zinegotziak, Gari Araolaza Eibar.org elkarteko ordezkariak eta La Caixa-ko ordezkari Estibaliz Areitiok. Hitzarmenari esker, apirilean Muzategi kalean zabaltzekoa den Indianokua Gaztelekuan gazteentzat mahaiko 10 ordenagailu eta eramangarri bat, inprimagailu batekin batera egongo dira, horiek erabili ahal izateko beharrezkoa den bestelako ekipamenduarekin. La Caixak, elkarte eta bestelakoei laguntzeko bere politikari jarraituta, 8.000 euroko diru-laguntza

eman du ekipamendu informaticoa erosteko, baina ekitaldian azaldu dutenez, dirua zuzenean Udalari ematerik ez dago eta, horregatik, diru-laguntza jaso ahal izateko eta, bide batez, teknologia berrietan adituak direnen aholku bila Eibar.org elkartera jotzea erabaki du Udalak. Elkarreak, berriz, aste honetan sinatutako hitzarmenak jasotzen dituen hainbat baldintza ipini ditu: besteak beste, ordenagailuak saioa hasteko orduan aukera bi eskainiko dituzte (Linux edo Windows), instalatuko diren softwareak libreak eta euskerazkoak izango dira eta ekipamenduak Eibarren bertan erosiko dituzte. Horrekin batera, nabigatzailea abiaraztean zein




Muzategi kaleko Gaztelekuak kolore deigarriak dauzka fatxadan. / SILBIA HERNANDEZ

orrialde agertuko den La Caixa-ren esku laga dute.

Apirilerako zabalik

Gazteleku berrirako beharren zaitirik handiena amaituta dago honezkero eta bertako arduradunen arabera, apirilerako inauguratzea espero dute. Gaur egun Karmen kalean dagoen Errota Gaztelekua ordezkaturako duen honek 450 metro karratuko azalera dauka, elkarrengandik bereiztuta dauden geletan banatuta. Horien arten handienak 150 bat metro dauzka eta "erabat, diskoteka bailitzan insonorizatu" dute. Bertan ipiniko dituzte

gazteen artean arrakasta handia duten bideokontsolak (Play Station 3 eta Wii bana), ping-pong mahaia, dardoetan jarduteko diana, futbolina eta horrelakoak. Horrez gain, eszenatoki txiki bat ere prestatu dute, proiektzioak egin ahal izateko beharrezkoak diren guztiekin. Beste geletako batean gazteak lasai egoteko butakak ipiniko dituzte, ikasten edo beste barik, berbetan egon nahi dutenentzat. Eta oraingo Gaztelekuarekin alderatuz gero, berritasunik handiena sukaldea izango da: bertan oinarritzeko sukaldaritzaren inguruko ikastaroak emateko asmoa dute.



Hitzarmena Udalak, eibar.org elkarreak eta La Caixak sinatu zuten. / SILBIA HERNANDEZ

La Sallekoak Candanchun

URTEROKO MARTXARI JARRAITUTA, LA SALLE AZITAIN IKASTETXEKO 3. DBHKO IKASLEAK ESKIATZEN IBILI DIRA, Candanchura egindako bidaiari. Otsaileko lehenengo asteburu normalean baino lehenago hasi zuten eta eguenean goizaldeko 05.00etarako martxan ipini ziren gazteak. Irakasleek azaldu digutenez, "eguraldiak lagundu zuen eta, horri esker, goizez eta arratsaldez eskia-tzen jarduteko aukera egon zen. Jatekoari dagokionez, berriz, albondiga eguna izan genuen".



GREMIOEN

GIDA



ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak, armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREGLATUAK
BERRIKOTZAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
ETA B.S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

CRISTALUX
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



irazabal
CONSTRUCCIONES, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



Pintura
Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruzak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

SARRAILAGINTZA

ITURGINTZA



INDA iturgintza

UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Baisu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Pinturas
Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



San Juan kalea, 1960 inguruan. Tramo hori Korreoseko bulegoen eta Ardantzako bidearen artekoa da. Kalearen prolongazioa, Udaletxearen atzeko alderaino, 1966an egin zen. / EIBARKO UDAL ARTXIBOA. HIRIGINTZA ETA OBRAK FONDOA



Jesus Gutierrez
historialaria

Iturri dokumentalak gerra zibilari buruz

Orain dela aste batzuk eta Eusko Ikaskuntzaren bitartez, Eusko Jaurlearitzaren laguntza eta babesarekin, liburu bat aurkeztu zen Gasteizen. Liburu horretan Gerra Zibilak Euskadin izan zuen bilakalerari buruzko iturri dokumentalen eta bibliografikoen gida jasotzen da. De la Granja eta de Pablo historialariak zuzendaritzapean ikertzaile eta historiagileak ibili dira mundu guztian zehar artxibategiak begiratzaren informazioa jasotzeko.

Liburu horretan atal ezberdinak bereizten dira: Artxiboak eta Dokumentazio zentroak, Lurraldeko Aldizkako Euskal Argitalpenak, Filmografia eta Ikus-entzunezko dokumentalak, Ahozko iturriak, Gerra Zibilean eta Frankoren diktaduran argitaratutako bibliografia eta Transitsiotik aurrera argitaratutako bibliografia.

Arestian aipatu dugun bezala gai hauen artean artxibategiko fondoa aztertzen da, eta atal berezi bat dago Eibartarren Ahotan fondoari buruz. Horrela dago deskribatuta proiektuaren emaitza: *“Azpimarratu beharra dago horrelako ezaugarriak dituen proiektu bat lantzeko moduaren eredu dela Eibarko Ikus-entzunezko Artxiboa. Hein handi batean, funtsak balioespen positiboa izatearen arrazioa proiektuaren oinarri den alde zureko planteamendu metodologiko baten emaitza da: lekukotasun-an bilketa, tratamendua, zaintza eta hedapena, hain zuzen ere”*.

XX. mendearen bueltan

FIDEL M. URBINA irakasleak honakoa idatzi zuen 1909ko abenduan **Maria de Maeztuk** Eibarren eman zuen hitzaldiaren harira. Bertan eskolak lur zabalean edo mendian ematearen aldeko postura erakusten du, sasoi hartako emakumearen inguruko beste iritzi bereziekin batera.

Eskolak aire librean

Bere titulua apostasia kontziente bateko eskarpian zintzilikatu dutenetako irakasle bat naiz. Karrerari uko egin diot, baina ez lanbideari. Ondo gogoratzen ditut umeen burmuinak txikitzen eman nituen urte loratsuak. Ez dago ezer lan pedagogikoa baino meritu handiagoa duenik. Esango banizue zergatik laga nuen! Irakasleak miseria gorrian bizi dira, Espainiako bihotzgabecko gizarte honek idi-parearekin lan egiten duen morroiari baino zikoizkeria handiagoarekin ordaintzen baitiete; txirotasun intelektualak materia asko ez ikastea dakar; testu-liburuak txantxa pedagogikoa dira eta sen onari iseka egiten diote; legeen nahaspilak tokia egin dio ezertarako balio ez duten 100 ministroen grina erreformistari... Eta, batez ere, geletako hauts madarikatua, gure eskoletako giroan nabaritzen dena. Zenbat irakasle ez dira hilko urtero amas-apatuaren gaixotasunen erruz? Eguzkiaren izpiek ondo salatzen dute maisuen hiltzailea den hauts hori, zoladura ezin kaskarragoan sei ordutako klaseetan 300 hanke sortzen duten sarraskia.

Maria de Maeztuk ezin ederrago deskribatu du bere ametsa: lehenengo mailako gaitasun intelektuala du eta, hitzaldian Renán, Rousseau eta Pestalozzi aipatu dituenen, ez zirudien irakurri dituenik baizik eta eurak zirela bere talentuaren inguruan hegan zebiltzanak. Magisteritzari ohorea ematen dion 1. Instrukzioko irakasle hau Langileen Elkartearen Federazioak egindako eskaerari erantzunez etorri da Eibarrera eta baita Salon-Teatroa lepo bete, Muñoz alkatea, antolatzailak eta herriko irakasle guztiak bertan izatea lortuz. Hona hemen berak esandako gauza batzuk: “Beharginen eta emakumeen giro hau nire bizitzako giroa da. Indarraren sinboloa den armagintzan diharduzue; baita artearen erakustokia den grabatuan. Nik materia zizelkatzen dut, burmuinari forma berriak emateko. Eta, emakumea naizenez, ez dut inongo alderdi politikitikozan militatzen. Eskolak

aire librean, jardinak bihurtuta, irri, kanta, txori eta loreekin: ume gaixoendako horren atzetik nabil. Eta, Unamunori jarraituz, gustatuko litzaidake noizbaiten esatea horietako lore batzuk nik ereindakoak direla. Espainiako gaur egungo eskolak tristeak eta monotonoak dira; mugimenduak eta ideiak, guztiz arautuak. Umea lau pareten artean dago gilzapetuta, bere naturalezak bakarrik lur zabalean dagoen airea, argia eta alaitasuna eskatzen duenean: horregatik dira anglosaxoiak gu baino gehiago. Aire libre mendian bakarrik amastu ahal da: etxean ez. Lur zabala da gizakiaren etxe naturala. Eskola bakarrik erabili beharko zen mendian bildutakoa gordetzeko eta eguraldi kaskarrak babesteko. Landa-eko-eskolaren ideia hemen baino euri gehiago egiten duen tokitik dator, Alemaniatik esaterako; hango hiriburuen inguruetan horrela sendatu dira tuberkulosia eta anemia zuten umeak, sendagileen aholkuei jarraituta, eskolak kanpingenda modukoak bihurtu dituztenen... Eta egon da umerik hilabete batzuetan 10 kilo irabazi dituenak! Horko irakaskuntza pertsonalagoa eta sakonagoa da... eta kostoa besteen herena! Hori gaixoeekin egin badute, zer ez dugu lortuko osasuntsuekin egiten badugu? Ideala? Burugabekeria? Ez da halakorik; errealitatea aldatu beharra dago”.

Espainia krisi sakonean dago. Jendeak, berrikuntzen beldur, ez du zientzia zaintzen. Europak, bizigogoz eta progresoz gainezka, mugitzera behartzen gaituenean, hor gaude, geldi: orain arte emakumeak progresuari oztopoak jarri dizkio beti, euren gizonei aholku txarrak emanez. Horregatik esaten diet: Eskatzen dizuedana umeendako da! Zelan txalotu zuten Maeztu Salon-Teatron bildutako 2.000 lagunek! Zelakoa den Eibar, liberala izan eta kultura maite duelako! Donostian 50 entzule ere ez zituen izango! Hemen, ordea, inteligentzia mugatukoak izan arren, emakume guztiek ikasi dute zertan ahalegindu behar duten.

Berdearekin liluratuta

Greenfarm (baserri berdea). Horrela deitzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa eta erregularizatuakoa babesteko elkarte. Euskadi mailako erabiltzaileak baten dituen elkarteak Eulogio Garate kalean bulegoa zabaldu eta, oso denbora tarte laburrean (hilabete pare batean baino ez) 100dik gora bazkide zituen. Askori elkartearen jardunaren berri ematen duten kartelak oraindik atentzioa deitu arren, horrelako elkarteak legezkoak dira eta Eibarkoaren kasuan Udalak zein Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak bere berri badute. Urtebete pasatxo dihardute beharrean gurean, *“modu arduratsu eta kontrolatuan kontsumitzaile izan nahi dutenek kalitatezko produktua, bitartekari barik eta dagokion prezioan lortzeko, dena legearen barruan”*. Eta horretarako formula bazkideen taldekakohazkuntza da.

1981ean onartutako mozioa

Baina ez pentsa, gero, marihuana edo kalamua legeztauzeko kontu hori modernoa edo berria denik gero. Izan ere, Eibarko Udala “droga leun” deitutako en legeztatzearen aldeko mozioa onartzen lehenengoa izan zen: 1981eko uztailaren 29an eta Mikel Larrañaga alkate zela, orduko PCE alderdiko zinegotzia zen Teruelek udalbatzarrari aurkeztutako mozioan gainontzeko zinegotzietan gaiaren inguruan alde edo kontra egitea eskatu zien, *“gizartean gero eta ozenago entzuten ziren aholketari”* kaso egin eta droga leunen legeztatzearen inguruko auzia mahai gainean ipinita. Horrelako kontsumoa delitotzat hartzearen kontra agertzearekin batera, ustezko kontsumitzaileen jazarpenekin amaitzea ere eskatzen zuten testuan eta *“herriko gazte bakezaleen aurkako jarduerak”* bertan behera lagatzeko pre-


mia azpimarratzen zuten, *“arazoak konpondu beharrean horiek areagotzea”* leporatuta.

Gaiaren inguruan berbetan jardun zuten zinegotzietan eta, amaieran bozka emanda, mozioa onartu egin zuten Teruel eta Eloro-iribe (PCE), Sarasua (EE), Fernandez, Lapeyra, Aizpurua eta Piedra (PSOE), Uranga, Osoro, Baglietto eta Elorza (HB). Praktikari begira eragina horrenbestekoa ez zen izan, baina garai hartan gizartean puri-purian zegoen gai honen inguruko debata eta, horregatik, asko izan ziren Eibar eredutzat hartu zutenak eta orduan alkate zenak honen inguruan galdetzen diotenean eran-


tzuten duenez, mozio horren inguruko kontuetaz galdezka dei asko jaso zituzten.

Arretaz egin beharreko lorezaintza

Izan ere, gero eta gehiago hedatu da norberak bere marihuana landareak bere kontsumorako landatzen dituztenak. Hortik herrian martxan dauden “growshop”-ak. Bertan azaltzen dutenez, *“hemen ez da marihuanarik saltzen, landareak hazteko beharrezkoak diren beste guztiak baino”*. Beste edozein landare behar dituen zainketa bereziak eta gehiago behar ditu marihuana landareak ere: haziak, berezitasun ja-



Espezie eta mota guztien zerrenda etenbarik hazien dihardu kultibatzaile kopuruak gora egitearekin batera.



kin batzuk dituen lurra, ongariak, zomorroi aurre egiteko produktuak... Eta hortik aurrera, bakoitzak duen eskuak ere zeresan handia izango du azkenean lortuko den emaitzean. Lehiaketak, San Kanuto izeneko patroia eta haren omenezko jaiak, telebista saioak, irratsaioak, milaka espezie batzen dituen “biblia”... berde koloreko mundu zabala aurki dezake horrekin interesa duen edozeinek.



Debarrenaren garaipena, Emmanuelen gol birekin

GARAIPEN EROSOA LORTU ZUEN DEBARRERNAK PASAIAN, Donibane Pari Berriri 2-4 irabazita. Eibarko taldea 0-3 joan zen irabazten, atsedendira heldu aurretik markagailuak 1-3koa erakusten bazuen ere. Andoni eibartarraren kaleratzeak 2-3koa eragin zuen, baina Donibaneko beste jokalaribaten kanporatzeak azken 2-4koa ekarri zuen. Bihar, 18.30etan, Debarrenak Lazkao hartuko du Ipurua kiroldegian.



Emmanuel goleatzailea.


ri aparteko konturik izan ez zuen neurketan. Adrianek lau gol lortu zituen, Carlosek hiru eta Josuk bi.

Kadeteen egurra Oñatin

1-12 irabazi zion kadete mailako taldeak Aloña Mendi-

Waterpoloko harrobia protagonista

BESTE HIRU PUNTU BEREGANATU ZITUZTEN URBAT-URKOTRONIK-EKOEK GASTEIZEN, bertako Lautada B-ri 9-13 irabaziz. Open Ligako sailkapeneko azkenarekin jokatzen zuela aprobetxatuz, Cerchi entrenatzaileak jokaldi berriak entsaiatzeko baliatu zuen partidua. Horrela, azken laurdenean Ibai Madariaga 94ko jubenilak eta Ekhi Sologastua 96ko kadeteak minutuak izan zituzten, azkenak gola sartzeko aprobetxatuz. Sestaok jarraitzen du lider, 24 punturekin, eta Urbat eta Waterpolo Navarra puntu bira daude.



Urki: lau garaipen eta porrot eta berdinketa bana

NESKEN INFANTIL MAILAKO TALDEAK BIKAIN HASI DU 2. FASEA ERE eta erraz nagusitu zitzaion Zestoari (5-1), baina ez da izan garaipena lortu duen talde bakarra: horrela, Erregional 1. mailako Kopan, Urkik 4-1 irabazi zion Soraluze B-

ri eta, Kopan ere, kadeteetan 3-1 nagusitu zitzaion Ikasberrikoei eta infantiletan 5-1 Mutrikuri. Jubenil mailan, igoera faseko partiduan, Eibarko taldeak bana berdindu zuen Koskas-ekin; eta, infantil txikietan, 0-1 galdu zuen Lazkaorekin.

Cuevas Espainiako azpitxapelduna maratoian

ASIER CUEVAS GOIERRI GARAIKO ATLETA EIBARTARRAK 2. POSTUAN AMAITU ZUEN DOMEKAN SEVILLAN jokatutako Espainiako maratoi txapelketan. Txapelduna Pablo Villalobos extremadurarra izan zen eta eibartarra lau minu-



tura sartu zen. Horrez gain, 2008an txapela jantzi zuen Cuevasek bikain lagundu zion Goierri Garaia bere taldeari taldekako sailkapena eurengeantzeko: berarekin puntuatu zuten Iker Maiorak (16. postuan) eta Ibon Esparzak (31.a).



Gómez izugarritzko zilipurdiak egiteko gauza da.

Freestyle Soccer-eko Espiniako txapelduna gaur Bizikleta Plazan

SAIO BIKOITZA ESKAINIKO DU JESUS GÓMEZ FREESTYLE SOCCER MODALITATEKO ESPAINIAKO TXAPELDUNAK. Txapel hori birritan jantzi duen Gómezek izugarritzko zilipurdiak eskainiko ditu baloiarekin, guztiak ere bere gorputzaren atalez baliatuz: lehenengo eguerdian, 12.00etan; eta arratsaldean gero, 18.30etan, biak ere San Andres elizaren ondoko Eibarko Bizikleta Plazan. Ekitaldia RETA kirol apostuen markak antolatu du, Plaza Barria 8an gaur bertan inauguratu behar duten lokala aprobetxatuz. Bigarren saioa amaitzean, lokala zabalduko da eta lunch-a eskainiko. Denda horrekin 14 ditu RETAk Euskal Herrian.





Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen eibartarren taldea.

Ametsak errealitate bihurtu zuten herriko igerilariek Tolosan

TOLOSAN JOKATUTAKO NEGUKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAN, URBAT-EKO IGERILARIEK euren markak hobetu, podiumera igo eta Palma de Mallorcan jokatu den Espainiako txapelketarako eskatutako gutxiengo denborak lortu zituzten. Aratosteen herrian ikaragarriko maila eman zuten infantil, junior eta absolutu mailetan jardun zuten Eibarko ordezkariak.

Zapato goizean, Nekane Tejedor-ek braza modalitateko 200 metroko proba irabazi zuen eta klubaren marka hobetu. Bizkar erako 50 metroan, Aitzol Arrillagak 3. postua eskuratu zuen eta Nora Varela 200 estiloko probarako gutxieneko denbora lortu zuen Espainiako txapelketarako. Arratsaldean, Markel Alberdik hegan egin zuen tximeleta erako 50 metroan eta 1. plaza eskuratu; braza modalitateko 100

metroan, Nora Varela 2.a izan zen eta Nekane Tejedor 3.a; eta 100 estilotan Andoni López 3. sailkatu zen eta Ander Izagirre laugarren. Jardunaldia amaitzeko, libre erako 4x100 metroko erreleboetan, eibartarrak 3.ak izan ziren.

Domekan, tximeleta erako 100 metrokoan Andoni Lópezek 2. postua lortu zuen eta Nekane Tejedor eta Iratxe Moya 2.a eta 3.a izan ziren, hurrenez-hurren. Markel Alberdi 2.a izan zen 50eko libre lasterketan, Aitzol Arrillaga 4.a bizkar erako 100 metroan eta libre modalitateko 400 metrokoan jendea zutik ipintzea lortu zuten Urbat-ekoek: Varela, irabazteaz gain, minimoa eskuratu zuen berriro ere; "Uraikan" Martin Aizpirik gauza bera egin zuen eta Xabier Oruesagasti 3. postuan sailkatu zen. Azken sailkapenean, indar erakustaldia eskaini eta gero, 5. postuan sailkatu zen Eibarko taldea.



tiduan, Unamunzaga-Egaña bikoteak amore eman behar izan zuen bertako Goikoetxea-Mendiaren aurrean; lehen zatia, erdira arte, parekatua izan bazen ere, hortik aurrera Goikoetxea nagusitu zen eta 22-13 galdu zuten eibartarrak.

Kadeteen arteko neurketa gaur Astelena frontoian

KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARIEK URNIETARRAK HARTUKO DITUZTE UDABERRI TXAPELKETAREN BARRUAN: neurketa Astelena jokatu da gaur, 20.15etan. Bestalde, Beasainen jokatuako ligaxkaren par-

Arratek aurre egin zion Ciudad Real-i

CIUDAD REAL HAUNDIAREKIN 25-31 GALDU ZUEN ARRATEK HERENEGUN IPU-RUA KIROLDEGIAN, baina aurreko partiduetan baino itxura hobea eman eta gero. Atsedenaldira 13-20ko emaitzarekin erretiratu ziren talde biak, baina bigarren zatian hobeto erantzun zuten Julian Ruizen mutilek. Beljanski pibota izan zen goleatzaile nagusia, zazpi golekin, Szabören aurretik (5 gol). Datorren eguaztenean Leonen jokatu

du Eibarko taldeak eta zaila izango du Ademar-i ezustea ematea.

Beheko taldeei dagokienez, euretako hainbat jokalarik jardungo dute Gipuzkoako selekzioarekin: horrela, jubeniletan lau izango dira, kadeteetan zazpi eta bigarren urteko infantiletan beste hiru. Bestalde, gestora berria lanean hasi da entitatea berritzeko eta batzarretan parte hartzeko bazkideak (ahotsa eta boto ahalmenarekin) lortzeari ekin dio.



Gipuzkoako selekzioek deituta, Arrate taldeko 17 gazte dihardute entrenatzen.

Oviedok entrenatzaile berriarekin hartuko du Eibar domekan

PACHETAK OVIEDOREKIN DEBUTATUKO DU DOMEKAKO PARTIDUAN eta Asturiaseko taldeak denboraldi honetan izango duen hirugarren entrenatzailea izango da. Oviedok Pichi Lucasekin hasi zuen denboraldia, gero Martínezeekin jarraitzeko; azken honekin ere ezin izan dute espero zuten emaitzak lortu eta, aurreko asteburuan Sporting B-rekin 0-1 galdu ondoren, Pachetarekin ibilbidea zuzentzeko asmoa dute Oviedokoek. Eibarren kontrako partidua 18.30etan



jokatuko dute eta Rubiaturen baja izango dute. Talde asturriarra izan da aurten Kopatik Eibar kaleratu duena.

Hierros Anetxe Gasteizen domekan

1. NAZIONAL MAILAKO PARTIDUAN, EIBAR HIERROS ANETXE ERRUGBI TALDEAK Arabat Gaztediren Gamarra zelaia bisitatuko du domeka eguerdian, 12.30etatik aurrera jokatu den norgehiagokan: mailaz igotzeko aukera asko izango dira bertan jokoan. Nesken taldeak Mungiako Atxurizubi zelaian jokatu ordu erdi lehenago Uribealdea taldearen aurka. Eta jubenilen mailako taldeak, ostera, etxean jokatu du: domekan, 12.00etan, Rugby Club Rioja hartuko dute Unben.

33 urteko eibartar hau orain dela lau-bost urte sartu zen Kulturaleko zuzendaritza taldean, eta gaur egun bertoko lehendakaria da. Urteko egitarauan buru-belarri murgilduta, astelehenetik aurrera itxura aldaketari ekingo diote, obrak hasiko baitituzte lokalean. Jardunean eraginik izango badu ere, gogotsu eutsiko diote lanari.

LEIRE ABANZABALEGI, Kultu-ko presidentea:

"Jende berriaren ideiak eta laguntza jasotzeko gogoz gaude"


- Zein eratako lanak egingo dituzue Kulturalean?

Aspaldiko ideia da. Zuzendaritzan sartu ginenean gure helburuetako bat horixe zen, Kulturalean obrak egitea, eta orain ikusi dugu horretarako aukera. Gure ametsa Kulturalean dagoen zine ahaztu hori Kafe Antzoki moduko zerbait bihurtzea da, baina horrenbesteko aurrekontura ailegatzan ez garenez, gure ametsa pixka bat mugatu behar izan dugu. Dena dela, etorkizunean norbaitek gogoia eta dirua izango balu, zinea berritzeko bidea zabalik laga dugu. Momentuz obrak taberna eta Topalekua berritzeko egingo dira, eta baita beheko solairuko sukaldea eta biltegiak berritzeko ere. Zinea zenaren platearen zatia taberna eta Topalekua handitzeko erabiliko ditugu, baina goiko solairuan ez dugu ezer egingo.

- Obrak tartean, urteroko egitarauari eusteko moduan egongo zarete?

Momentuz bai. Epe laburrean Eguen Zuri argazki lehiaketa eta martxoko bertso astea ditugu, baina egia esan, obrak direla-eta, gure egitaraua ezin izan dugu handitu eta ditugun ekintzak ere beste era batera planteatu beharrean gaude. Horretarako Klub Deportiboari edo beste elkarteren bati laguntza eskatu behar izango diogu. Izan ere, San Juanak arte ezingo dugu gure elkartaren lokalik erabili.

- Itxura aldaketak ekarriko al du aldaketarik zuen egitarauan ere?



Etorkizunera begira ilusioz beterik gaude. Lokala berritzeak ez dio soilik tabernari onurak ekarriko, denontzat izango da onuragarri. Topalekua handituko denez, erakusketez gain beste gauza askorentzat erabiltzeko asmoa dugu: literatura talde bat, liburu-diska aurkezpenak, ipuin kontalariak, bideo emanaldiren bat... eta jaso dezakegun beste edozein proposamen.

- Zelan doa Kulturalean martxa?

Orokorrean ondo, programazio finkoari eusten diogu, baina egia esan azken hilabeteak nahiko gogorak izan dira, irailan Aniaiz atxilotu ostean haren hutsunea zentzu askotan igarri dugulako, eta aldi berean obraren korapiloa ere tartean izan dugulako. Bestetik, gazteen parte-hartzearen falta igartzan dugu, beharbada ez dute ondo ezagutzen elkarteak edo bertan egin daitezkeen ekitaldiak, baina obrak amaitu eta gero, gure ekitaldien martxa ere aktibatzen asmoa dugu, ideia berriekin... Hori bai, jende berriaren ideiak eta laguntza jasotzeko gogoz gaude.



C.V. taldea Koskorren

GAUR GAUEAN, 23.00-ETATIK AURRERA, EIBARKO C.V. ROCK TALDEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU Koskor tabernan. 1985ean jaiotako taldeak "Rock & Blues" izenburupean eman zuen argitarara bere lehen lana, 1996. urtearen amaieran eta handik urte pare batera bigarrena ailegatu zen: "Tarde pero seguro". Ondoren taldeak jotzeari laga zion, baina iaz taldearen sorreraren 25. urteurrenaren harira berriz elkartu eta zuzeneko emanaldiei heldu zieten. Gaur egun Fernando Machín, Oscar Martínez-Toledano, Aitor Irisarri eta Oscar Solak osatzen dute C.V. taldea.



Cobra-ren bigarren diskoa martxorako

MARTXOAREN 6-AN IZANGO DA KALEAN COBRA TALDEAREN BIGARRIN DISKOA: "Thriller". Haritz Lete (Kokein taldeko bateria-jolea eta Gaztea Live saioko aurkezlea), David González (Berri Txarrak taldeko baxua), Ekain Elorza (Dinero eta Seiurte taldeetako bateria-jolea) eta Josu Luengo (Evirus69 taldeko gitarrajolea) 2006. urtean batu ziren, Cobra taldea sortzeko. Hurrengo urtean eman zuten argitara euren lehen estudio-lana: "The Strong Arm Of The Rock" (Marion Cobretti Records). Diskoak oso harrera ona izan zuen eta taldeak urte bi eman zituen lana zuzeneko emanaldietan ezagutzera ematen. Bigarren diskoa Kaiowas Records Bartzelonako disketxean grabatu dute eta, behin argitaratuta, aurrez berriz ere eszenatokitara igoko dira Cobra taldekoak.

Artisten Elkartekoak Ermuan

EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAK TALDEKAKO ERAKUSKETA DAUKA MARTXAN ERMUAN, Lobiano Kultur Gunean. Martxoaren 6ra arte ikusgai izango diren lanak biltzen dituen erakusketak astelehenetik barixakura bitartean 18.00ak eta 20.00ak bitartean egongo da zabalik eta zapatu, domeka eta jai egunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.

Dokumentu berriak Eibarko idazleen datu-basean

EIBARKO IDAZLEEN LANAK ETA GURE HERRIARI BURUZ IDATZITAKOAK BILTZEN DITUEN DATU-BASEAN dokumentu gehiago sareratu ditu Ego Ibarra batzordeak eta, lehenagotik zeudenei beste berri batzuk gehitu dizkiete, tartean 1959ko Euskalzaleen Biltzarrekoak. Ego Ibaratik adierazitakoaren arabera, "1959ko azaroaren 6tik 8ra Eibarren egin zen Euskalzaleen Biltzar osoa jasotzen duen Euskaltzaindiaren alea dakargu oraingoan, Mogel zuena hizpide eta aipagai: Altube, Etxaide, Lojendio, Arrue... eta orain dela gutxi zendu den Jabier Zubiaurre eibartarraren 'Mogel eta burdingintza' bertan daude". Horrekin batera, datu-baseari erantsitako artikuluko gehienak Juan San Martinenak dira, EGA-



Juan San Martín Oñatin 1989an, euskaltzainekin.

Nen eta RSBAPeko buletinetan argitara emandakoak, baina badaude baita ere Montserrat Garate, Ramiro Larrañaga, Iturriotz eta Serafin Basaurirenak ere.

Eriz magoa ...eta kitto!ko bazkideentzat

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ERIZ MAGOAREN IKUSKIZUNA ANTOLATU DU otsailaren 27rako, domeka, goizeko 11.30etan Portaleko areto nagusian. Ekitaldia Gurasoak Berbetan Haur Hez-



Gurasoak Berbetan programan parte hartzen diharduten taldeetako bat. / MAIDER ARANBERRI

kuntzako gurasoen mintzapraktika taldeentzako bada ere, ikuski-zunerako gonbidapenak ...eta kitto! Euskar Elkartearen bazkideen artean ere banatuko ditugu. Gonbidapen horiek jasotzeko ...eta kitto!-tik pasa beharko da (Urkizu 11, solairuartera) eta datozenen artean banatuko dira agortu arte (bazkide bakoitzak lau hartuko ditu gehienez ere).

"Ogro txikia" bihar Coliseoan

GORAKADA ANTZERKI TALDEAK BIHAR ARRATSALDEAN, 17.00-ETAN TAULARATUKO DU "Ogro txikia" 6 urtetik gorako umeentzat pentsatutako ikuskizuna Coliseo antzokian. Agurtzane Intxaurreagak zuzendutako lanean hiru proba gairatzeko erronkari heldu beharko dion ogro baten istorioa kontatuko digute Iñake Irastorza, Aritz Rodríguez eta Javi Tirado aktoreek. Sarrerak 4 euro balio du eta lehiatilan bertan erosteko aukera egongo da, ikuskizuna hasi baino orubete lehenago.



laburrak

JAVIER RUIZ-EN MONOLOGOA AMETSAN

Gaur gauerdian ikuskizuna eskainiko du Javier Ruizek Ametsa tabernan. Umorez betetako monologoak eskainiko ditu Eibarren egingo duen emandaldi bakarrean. Bestela, Maria Cristina hotelean martitzenero eskaini ohi ditu bere monologoak.

MAHAI-JOKOAK BEHEKO-TOKIAN

Martxoan mahai-joko txapelketak jokatuko dira Beheko Tokian, bazkideen artean. Martxoaren 1ean tute eta mus txapelketen txanda izango da, martxoaren 2an 12.00etan toka eta igel-tokarena, 3an 16.30etan briskan jardungo dute eta hurrengo egunean, 16.30etan "seietan". Izen-emateko epea txapelketa bakoitzaren bezperara arte egongo da zabalik.

ARATOSTEAK GERTURATZEN

Aurten eguen zuri martxoaren 3an egokituko da, baina girotzen joateko otsailaren 25etik aurrera eta martxoaren 6ra arte Aratosteetako kartel lehiaketako lanekin erakusketa egongo da martxan Portalean. Bestalde, Kezka dantza taldekoen koko-dantzak eta koko-eskea Aratoste aurreko asteburuan, otsailaren 26an izango dira.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

– Barruko 6 ate
– Sarrerako ate bat
– 7 aurremarko, heldulekuekin
– Etxe osoko parketa
– “ ” zokaloak
– Material akabera haritzean
– ETXE GUZTIKO PINTAKETA
baldintzak kontsultatzeko 665 70 45 51

ZURE ETXEAREN BERRIZTEA

bakarrik
7.377,36€
ordainduta
BEZ BARNE

AROTZEGIA-EBANISTERIA
ANGEL DIEZ
665 70 45 51


NEURRIKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
PVC LEIHOAK
EGURREZKO LEIHOAK
SUKALDEAK

Pianojole gazteak Andoainera

DOMEKAN EGIN ZEN COLISEOAN J.B. GISASOLA MUSIKA ESKOLAK, ISABEL LASPIUR IRAKASLEAK LA-GUNDUTA, gazteen piano jaialdiaren bigarren edizioa. Aurreko asteburuko kontzertua bihar eta etzi Andoainen egingo den VI. Piano Jaialdirako beroketa ariketa ere izan zen. Asteburu honetan A mailan (11 urtera arteko ikasleak) lehiatu-ko direnak Jaione Artetxe, Iñigo Carmona, Nerea Etxebarria, Lucia Juarez, Julen Pisa eta Nara Tytgat dira. B mailan (14 urtera arte) Miren Agirre, Amaia

Alberdi, Koro Alonso, Jon Azkune, Arrate Baroja, Ander de Diego, Iker Egidazu, Lucia Irigoien, Ane Juarez, Jorge Lahidalga, Asier Pisa, Itsaso Ramirez, Elisabet Unamuno, Madalen Yarza eta losu Zulaikak hartuko dute parte. Eta C mailan (18 urtera arte) Haizea Arizaga, Maider Bartolome, Cristina Gisasola, Andrea Gonzalez, Miriam Petite eta Nerea Unamunok jardungo dute.

Horiez gain, beste hainbat ikaslek lau eskutara joko dute pianoa (bikoteka): Nerea Aja eta Maria Alaez; Leire Cartagena eta



Ikasleetako batzuk bikoteka, lau eskutara, joko dute Andoaingo lehiaketan ere. / SILBIA HERNANDEZ

Miren Loiti; Helene Larrazabal eta Ainhitze Lasa; Iker Markos eta Miren San Martin; eta Malen Txurruka eta Elena Varela dira A mailako bikoteak; B mailakoak Aizpea Goitiandia eta Marina

Laspiur; Nerea Gorostiza eta Nuria Robleño; eta Andrea Lupeña eta Ane Ribaguda dira; eta C mailakoak Ander Curiel eta Iñigo San Martin; eta Amaia Lahidalga eta Andrea Perez.

Andrazkoak protagonista Portalean

GAUR ARRATSALDEAN, 19.00-ETAN ZABALDUKO DITUZTE ERAKUSKETA BERRI BI, aldi berean, Portalean. Martxoaren 13ra arte Rosa M^a Valbuena bilbotarraren margolanak hartuko ditu 2. solairuko erakusketa aretoak. Batik bat olioak eta akuarelak ipiniko ditu ikusgai artistak, horietako batzuk tamaina handikoak. Eta Valbuenaren lanekin batera, Izaskun Alvarez-Gainzak "Graphique et couleur" izenburuko erakusketa ipiniko du martxan. Donostiako artista gazteak grabatuak eta instalazioak lantzen dihardu azken aldi honetan, espazioaren eraldaketa helburu duela. Erakusketa biak ohiko ordutegian egongo dira zabalik, martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.



Oier Araolaza "Bertsolamintza" jardunaldietan



BERTSOZALE ELKARTEAK ANTOLATUTA, BERTSOLAMINTZAREN LAUGARREN EDIZIOA ABIATUKO DA otsailaren 26an, "Inertziak erantzi, garena jantzi" leloari jarraituta. Sara, Gasteiz, Iruñea, Durango eta Villabonan izango dira ekitaldiak eta tartean Oier Araolaza eibartarrak hitzaldia emango du martxoaren 1ean Gasteizen "Txapelketaren kontra" izenburuari jarraituta. Aldamenean Fredi Paia bertsolaria izango du, "Zelan eragiten dio txapelketak sormenari? Epaileak kalitate ziurtagiri?" izenburukoa ematen. Hitzaldien amaieran, Asier Lafuentek aurkeztuta eta moderatuta, eztabaida publikoa hasiko da.

Txistularien kontzertua domekan

DOMEKAN, 12.30-ETATIK AURRERA KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE USARTZA TXISTULARI TALDEKOEK Untzagan, udaletxeko arkupeetan. Elena Pérezek zuzenduko duen kontzerturako prestatu duten egitaraua honakoa da: "Deika" (zortzikoa, J.I. Ansorena), "Aizepe" (Isidro Ansorena), "Birigarroa" (Isidro Ansorena), "Xarmangarria (doinu eta aldaketak, J.I. Ansorena Miner.), "Bolero ta polka xumea" (ezezaguna), "Euskal bilera" (I. Ansorena), "Alpeetako oroimena" (Mold: J.I. Ansorena) eta "Galo" (orripeko) eta "Ardo ona" (J.I. Ansorena).



EUSKARAREN

SALGAI KORRIKA 17-K EGIN-GO DITUEN KILOMETROAK.

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari lelopean egingo dute Korrika 17 Trebiñutik Donostiara. Euskararen aldeko festa girotzeko, hainbat ekintza daude, tartean kilometro salmenta. Kilometro bakoitzak 400 euro balio du, baina enpresek 500 euro ordaindu beharko dituzte; hala ere, kilometroak partekatu egin daitezke beste eragile, talde edo enpresekin. Bestalde, Korrika Kulturaleko antolatzaileek *Euskalclip* bideo lehiaketa ipini dute martxan; lanak otsailaren 25a baino lehen bidali behar dira korrika17@gmail.com helbidera; asko jota hiru minutuko bideoak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara eta Korrika 17ren leloa behin erabili behar da gutxienez. Saria Mac ordenagailu bat izango da. Aurtengo Korrika apirilaren 7an hasiko da eta 17an amaitu. Aurretik, Korrika Kulturaren barruan, "Sekula bai" antzezlan eskainiko da Coliseoan martxoaren 31n, arratsaldeko 20.30etan hasita.

TXOKOA

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AINHOA, zure hamabigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat zure famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MIREN Albizu, astelehenian zazpi urte egin zenuan-eta. Muxu pillua famelixaren partez.




Zorionak, MALEN, eguaztenian sei urte egin zenuazuen-eta. Muxutxo bat etxekuen partez.




Zorionak, NAIA, martitzenian hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, IKER, bihotzita, gure bitxito txikixa. Etxekuen partez, milla muxutxo, balentino!




ANE gure etxeko txikixak hiru urte egin ditte. Zorionak eta muxu bat, Malen eta etxekuen partez.




Zorionak, MIREN, atzo zure urtiak izan ziran-eta. Mikelen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI Arakistain Mendizabal, atzo zortzi urte bete zenuazelako. Famelixa osuaren partez.



Zorionak, IKER Blanco Calderón, zure bigarren urtebetetzian. Famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL Rodríguez, hillaren 16xan urtia bete zenuan-eta. Famelixaren partez.

zinea Coliseoan

18an: 22.30
19an: 17.00/19.45/22.30
20an: 17.00/19.30
21ean: 20.30

"Morning Glory"

Zuzendaria: Roger Michell
Aktoreak: Rachel McAdams, Harrison Ford, Matt Malloy, Diane Keaton



Becky berriak ematen dituen programa bateko produktorea izan nahi du eta, goizeko akasdun magazinea salbatzeko, aurkezleen gaineko kontrola ezarri nahiko du. Horretarako, sasoi batean ospetsua izandako kazetaria kontratatuko du.

18an: 22.30
19an: 17.00/19.45/22.30
20an: 17.00/19.30
21ean: 20.30

"También la lluvia"

Zuzendaria: Iciar Bollain
Aktoreak: Raul Arévalo, Gael Gª Bernal, Luis Tosar, Karra Elejalde



Lagun bi daude Bolivian pelikula bat filmatzen: Sebastian zuzendariak benetan gertatutakoa kontatu nahi du eta Costa produktoreak filma amaiteza besterik ez du nahi. Tarte horretan Uraren Gerra hasten da, herritarren iraultza pizten duena.

"Megamind" 3D

20an: 17.00

18an: 22.30
19an: 17.00/19.45/22.30
20an: 19.30
21ean: 20.30

"Saw VII" 3D

Zuzendaria: Kevin Greutert
Pertsonaiak: Tobin Bell, Costas Mandylor, Betsy Russell, Sean Patrick Flanery



Gizatalde bat Bobby Dagen guruarengana jotzen du laguntza eske, Jigsaw legatuaren batailak hildako asko lagatzen duen bitartean. Bobby, baina, sekretu ilun asko dituen asmo gaiztokoa da eta benetako beldurra sortuko du inguruan.

HILDAKOAK

- Andres Zulaika Bergaretxe. 96 urte. 2011-II-10.
- Jenaro Garate Goyarzun. 84 urte. 2011-II-11.
- Edurne Astaburuaga Egaña. 85 urte. 2011-II-12.
- Laura Gojenola Intxaurreandieta. 65 urte. 2011-II-15.
- Alexander Aristegi Arostegi. 43 urte. 2011-II-15.
- Tomas García Garrido. 72 urte. 2011-II-15.

JAIOTAKOAK

- Enara Manero Arco. 2011-II-6.
- Telmo Zulueta Martín. 2011-II-7.
- Unai Méndez Carrillo. 2011-II-7.
- Miren Salaberria Lersundi. 2011-II-10.
- Aner Iriarte Prieto. 2011-II-11.
- Danel Molina López. 2011-II-11.
- Nahia Molina López. 2011-II-11.

horoskopoa

ARIES

Udaberria ate joka dator eta zuk look aldaketa behar duzu. Laga egizuz beltzak, grisak eta marroiak eta emazioz kolorea zure janzkerari.

TAURUS

Grisa zara. Badakigu gauzak ez direla beltzak edo zuriak, baina batzuetan erabakiak hartzea eta hemen edo hor kokatzea ezinbestekoa da.

GEMINI

Zergatik ez duzu benetan pentsatsen duzuna esaten? Zer uste duzu, ez zaizula igartzen? Garbiago jokatu eta ausarta izan beharko zenuke.

CANCER

Koadrila osoa klonikoak ematen duzue. Denak orrazkera, zapatilla eta janzkera berarekin! Norbere izakeraren marka izatea hobe da.

LEO

Badakigu naruzko zamarrak modan daudela, baita vintage erako jantziak ere. Baina, hortik aitzixaren txamarrarekin kalera irtetzea...

VIRGO

Moda kontua izango da, baina barruko arropak hain bistan eramateak baldar itxura besterik ez ditu ematen. Ahalegindu aldatzen.

LIBRA

Aukera bi dauzkazu. Edo eguzki apur bat hartzen duzu edo goitik behera beltzez janztea alde batera laga beharko duzu. Zuk ikusi!

SCORPIUS

Zapatekin erabat obsesionatuta zaude: denak gustatzen zaizkizu eta etxean ez zaizkizu gehiago sartzen. Hori uste duzu plana dela?

SAGITTARIUS

Oso sexy-a zara eta zuk badakizu. Baina, kontuz, zure puntu sexy hori larregi erabiltzen baduzu, azkenerako beste zerbait emango duzu-eta.

CAPRICORNIUS

Ligatzea nahi baduzu, kolore pastelak erabiltzea gomendatzen dizut; jakizu behar duzun goxotasun puntua emango dizutela beti.

AQUARIUS

Udaberriko arropak armairutik atera dituzu eta, honezkerok, erabiltzen hasita zaude. Kontuz: oraindik ere hot egingo du-eta.

PISCIS

Moda jarraitzea ondo dago; beti ere zeure gorputzera egokituta eta zure ikutua ematen badiozu. Bestela, igarri ere ez zaizu igarriko.

Barixakua 18

FREESTYLE SOCCER

12.00.- Jesus Gómez Espainiako txapeldunaren erakustaldia. Biziklera Plazan.

17.30.- Freestyle soccer, Jesus Gómezen eskutik. Bizikleta Plazan.

18.30.- RETA kirol apostuen dendaren inaugurazioa. Barria Plaza, 8an.

INAUGURAZIOA

19.00.- Izaskun Alvarez-Gainzaren *"Graphique et couleur"* eta Rosa M^a Valbuena-ren margo erakusketen inaugurazioa. Portalean.

KONTZERTUA

23.00.- Eibarko C.V. rock taldearen kontzertua. Koskor tabernan.

MONOLOGOA

00.00.- Javier Ruiz-en monologo-saioa. Ametsa tabernan.

Domeka 20

KONTZERTUA

12.30.- Usartza Txistu Taldearen kontzertua. Udaletxeko arkupetan.

Martitzena 22

IKASTEN

10.00.- *"El tiempo en las diferentes culturas y civilizaciones"*, Miguel Arroitauregiren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTAROA

18.00.- Ileapaindegi ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

IKASTAROA

18.00.- *"Haurren garapenaren ezaugarriak"* (2 eta 7 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzat). Portalean.

ENTSEGUA

19.45.- San Andres parrokiako abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

Eguaztena 23

IKASTEN

10.05.- Mendi-ibilaldia: Donostia-Orio. Ardantzian.

Eguena 24

IKASTEN

10.00.- *"Medicina natural"*, Carlota Olaizolaren eskutik. Armeria Eskolan.
19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokaletan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- *"La vida en tiempos de guerra"* (Zuz: Todd Solondz). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.

IKASTAROA

18.00.- Ileapaindegi ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

IKASTAROA


18.00.- *"Haurren garapenaren ezaugarriak"* (2 eta 7 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzat). Portalean.

ODOL-EMAILEAK

18.30.- Odol-ateratzea odol emaitzen elkartearen (Pa-gaegi, 5).

MAHAI INGURUA

19.00.- *"... eta orain zer?"*. Mariano Ferrer (kazetaria), Jone Goirizelaia (Arnaldo Otegiaren abokatua), Xabier Arzalluz (EBBko lehendakari ohia) eta Martxelo Otamendi (Berria-ko zuzendaria). Moderatzailea: Hasier Etxeberria. Elgoibarko Herriko Antzokian (Elgoibar).



MUSIKA:
Voces y Cuerdas.
Otsailak 26, 19.00.

ANTZERKIA:
"Ogro txikia"
(Gorakada).
Otsailak 19, 17.00.

salgai


SUDOKUA

							6
9		8				2	7
	2		6	9		3	
		3			7		5
7				8			2
	4		1			7	
		1		4	9		3
4	3					2	5
5							

DENBORAPASAK

5	4	1	9	8	3	2	6	7
7	9	8	4	5	2	8	3	1
3	8	2	1	7	8	9	5	4
1	7	5	3	2	8	6	4	9
2	6	9	8	4	7	3	1	5
4	3	8	6	1	5	7	9	2
8	2	3	5	8	4	1	7	9
6	5	7	2	9	1	4	8	3
9	1	4	7	3	8	6	2	5

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Otsailaren 28ra arte
PEIO AGIRRE-ren argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*
- ALEJANDRO MARTÍNEZ ACIN**-en argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en "India" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- RAFA HERRERO**-ren "Paisajes mínimos" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Martxoaren 6ra arte
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA-ren erakusketa kolektiboa. *Ermuko Lobiano Jauregian.*
- Martxoaren 13ra arte
IZASKUN ALVAREZ-GAINZA-ren "Graphique et couleur" erakusketa. *Portalean.*
- ROSA M^a VALBUENA**-ren margo erakusketa. *Portalean.*

ikastaroak

- **Tai Chi Chi Kung (arnasketa eta kontzentrazioa lantzen).**
Non eta noiz: *Otsailaren 18tik urriaren 28ra arte, barixakuetan 16.30etatik 18.00etara (36 ordu) Ugan Klubean.*
Informazioa: toki guztiak bete arte, www.kutasocial.net helbidean edo 902540040 telefonoan (astelehenetik barixakura, 08.00etatik 14.30etara).
- **Ileapaindegi ikastaroa.**
Noiz eta non: *Otsailak 22 eta 24 eta martxoak 8 eta 10, 19.00etan ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).*
Izen-ematea: Otsailaren 3tik 15era, ...eta kitto!-n (943200918). 10 euro (...eta kitto!-ko bazkide eta mintzalagunentzat doan).
- **Haurren garapena.**
Norentzat: 2-7 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzat. Non eta noiz: *Otsailak 22, 24 eta martxoak 1 eta 3, 18.00etatik 20.00etara, Portalean.* Informazioa eta izen-ematea: Pegoran, otsailaren 16ra arte.
- **Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa.**
Non eta noiz: *Martxoaren 5etik 26ra, 09.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.30etara.* DYako ordezkaritzan (Pagaegi, 5). Informazioa: www.dyagipuzkoa.com edo 943464622(100 euro)

farmaziak

- 18, barixakua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 19, zapatua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 20, domeka**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 21, astelehena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 22, martitzena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 23, eguaztena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 24, eguena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 25, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

lehiaketak

- **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era arte, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarte.*
- **XIV. Eguen Zuri Argazki lehiaketa.**
Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte, arrate.kultu@eibar.org* edo 943202299 zenbakia.
- **Ixuako Pasua - Valenciaga Memoriale.**
Apirilaren 3ko txirindularitza lasterketako argazki lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Maiatzaren 6ra arte, Eibarko Txirindularien Elkarte* (Pagaegi, 3 / ccc@clubciclistaeibarres.org).

telefono jakingarriak

- SOS delai112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Urkizun. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Iggogailua. Bizitzera sartzeko moduan. 205.000 euro. Tel. 649-441825.
- Pisua salgai Juan Gisasola 5ean (4. A). Sukaldia, hiru gela, egongela, komuna eta despentsa. Iggogailua eta fatxada berriztuak. Tel. 605-838562.
- Legarren pisua salgai. 70 m². Terraza handia (hego alderantz). Oso argitsua. 232.000 euro. Tel. 605-730131.

1.2. Errentan

- Etxea alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Tel. 660-378181.
- Logela alokagai Saratsuegi kalean. Tel. 650-917491.
- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.
- Pisua hartuko genduz alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.

3. Lokalak

2.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Errentan

- Lokal komertziala alokagai Sostoaarren 17an. 18 m². Tel. 669-276773.
- San Andres pasealekuan garajea alokagai. 7 m²ko trasteroarekin. Tel. 943-120308.
- Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m². Komuna eta barrarekin. 18 urteko gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, ileapaintzaile profesional moduan eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 652-585259 eta 655-132769.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta finka bateko zaintzaile moduan. Tel. 655-132769 eta 652-585259.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 605-129530.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, nagusiak paseatzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 685-765340.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-029329 eta 671-329852.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-109181.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 669-688755.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 649-008036.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 606-226827.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-625733.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-621109.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-421933.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-531218 eta 699-653874.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-068463.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 657-345279.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 636-383471.
- Mutila eskaintzen da garraiolari edo gidari jarduteko. Karnet guztiak, baita motorrarena ere. Tel. 674-849146.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo paseatzeko. Tel. 628-014327.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 608-886701.
- Mutila eskaintzen da furgoneta-ekin banatzaile jarduteko eta enpresak garbitzeko. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko (sukaldari laguntzaile jardun, umeak zaindu) 15.30etatik aurrera. Tel. 616-397348.
- Emakumea eskaintzen da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko (sukaldari laguntzaile jardun, umeak zaindu) 16.00etatik aurrera. Tel. 638-233739.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta etxea garbitzeko. Tel. 619-507664.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-972690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Mendaroko ospitalean edo etxean. Tel. 638-249775.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (Mendaron) eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko Mendaron. Tel. 688-884746.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 673-919233.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 676-035738.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile jarduteko. Tel. 610-188644.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore laguntzaile jarduteko. Tel. 627-159645.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan edo gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 666-771151.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna edo externa. Tel. 634-007292.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 696-450343.

4.2. Eskaintzak

- Ileapaintzailea (1^oko ofiziala) behar da Eibarko ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-254512.
- Kamarera behar da autoarekin. Extra moduan. Tel. 677-638184.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingenieritza Informatikako 3. mailako ikasleak "Datuen estrukturak eta algoritmoak 2" ikasgaiko klase partikularrak ematen dituen irakaslea behar du. Tel. 619-163031.

5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrak ematen dira, ume eta helduentzat. Tel. 645-488483.
- Klase partikularrak ematen dira, ume eta helduentzat. Tel. 645-488483.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohea (1^o50ekoa, oheburukoa eta somierrarekin), gau-mahai bi eta egongelarako marketeria-mahaia salgai. Lau aulki tapizatu opari. Tel. 670-593605.
- Jaunartzeko jantzia (marineroa) salgai. 14 tallakoa. Behin erabilia. Merkea. Tel. 630-686469.

6.2. Eman

- Hilabete biko txakurkumeak oparitzen ditut. Tel. 678-323837.
- Maxi Coxi kotxe-kapota, aulkia eta sehaska emango nituzke. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 635-729625.

6.4. Bestelakoak


- Eibarko lagun bik lagunak nahi dituzte irtetzeko. Tel. 669-911573 eta 658-732727.

AURPEGI TRATAMENDUAK


Berehalako eragina duen

GAZTETZE TRATAMENDUA

ZIMURRAK



lehen




orain

ORBANAK



lehen



orain

Mikropigmentazioa

Betileen luzapena / Gel azazkalak
iraupen luzeko manikura eta pedikura

CAPI

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

Laser fotodepilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

3x2

- OSTEOPATIA (burezurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

Masajeak

Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin

30 minutuko
masajea edo
erreflexologia
OPARI

BEGIBISTAKO
EMAITZEKIN
LEHENENGO
SAIOTIK

BERRIA

5 saio

150 euro

30 euro

saio bat

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskara tik
gaztelera ra,
gaztelera tik
euskara ra,
eta ingelese tik
euskara ra.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75